



Kepa Iribarren

Bidaia



Martxoan hotz egiten zuen artean Frantzia. Edozein toki egokia zen mokadutxo bat jateko.

Tolosa-Pekin bidaia koadernotik...

Bidaia berrobitarrak 15.000 kilometro egin ditu lau hilabeteetan, bizikletan, trenean eta itsasontzian

Iratxe Etxebeste

Mosku. Laurogei egunetan; Willy Foggek mundu osoa zeharkatzeko behar izan zuen adinako denboran egin du Kepa Iribarren berrobitarrak (Gipuzkoa) Errusiako hiribururakoa. Hamabost kilo inguruko bizikleta hartuta, Tolosatik ekin zion bere abentura bidaia.

Frantzia mila kilometrotik gora egin, eta Belgikara lehenik, Herbehere-tara ondoren; gero, Alemanian sartu zen. Handik, Errepublikak Baltikora. Pedalkada ugari eman behar izan zituen denak zeharkatzeko. Lituania, Letonia eta Estonia atzean utzita iritsi zen Errusiara. Eta bertan zegoen jada, lauorgeri egunen buruan, Plaza Gorriaren ataria. Bere abentura bidaia lehen jomuga.

Denboran atzera egin, eta aintzat hartzeko moduko pasadizoak, makina bat. Martxoaren 16koa lehena: hamabost kilo inguruko bizikletari kanpadenda, osagaiak eta beharrezkoak soinean jarrita, etxetik irten zenekoa. Frantziarako bidea hasi aitzin, lotuak zituen hautatu beharreko errepideak eta bidezidorrak. «Frantziak ordokiz betetako lurraldea behar du izan», pentsatuko du edonork. Kepa Iribarren aski ezagun du gezurra dela esaera hori; Landak izan ezik, maldaz josiriko bideak topatu ditu eta. «Herbehereak bizikletaz ibiltzeko lurralde aproposa dira», entzuna zuen Iribarrenek sarri askotan. Baita pentsatu ere. Amsterdam: bidegorri ugari gurutzatzen diren hiriburua. Haur, gazte nahiz helduen zubi, batetik bestera ibiltzeko eginikoa balitz bezala.

Herriz herri ibiltzeko baino ez ei dute balio, ordea: «Autoen zentzu berean izan ez, eta bideak nahasgarri gertatzen direlako».

«Apirilak 5, hogeita batgarren eguna, Amsterdam iparraldean», idatzi du koadernoan.

Begien aurrean, Plaza Gorria. «Non-dik zatotz?», galde egiten diote errusiarrek. «Laster aspertzeko dira, elkar ulertzeko ez dugulako», pentsatzen du. Hotel baten bila hasi behar berehala, Txinara eta Mongoliara sartzeko agiriak prestatu ahal izateko. Lotarakoan, burura datorkio ordua arteko bidaia; bakardadean eginiko abentura.

Mila eta bostehun kilometro egin zituen kasik Lituania, Letonia eta Estoniako errepideetan barna. Ehunka kilometrotan orografia arras bertsua, «as-

pertzeraino». Lakuak eta basoak sarri, eta zelaia ere bai...

Hastapenean hautatu ez zuen herrialderak joatea erabaki zuen bat-batean: Finlandiara.

«Finlandiarrak orain artean aurkitu ditudan pertsona atseginenak dira», idatzi du koadernoan. Eta barre artean, oroitzapen bat. Argazkiak atera gura zebilen batean laguntza eske joan zen hiruzpalau pertsonarengana. «Aterako al didazu argazki bat, mesedez? Eta alde egiten didate denek. Finlandiarrek itxiak behar dute izan... Baina zeritxura izango nuen, turistei argazkiak ateratzetik bizi nintzela pentsa izateko!».

Moskutik Pekinera

Ondoren, Errusiara. San Petersburgoko nahasmenetik, Moskura. Laurogeigarren eguna. Plaza Gorria. Horixe dio bere koadernoak. Sei mila kilometro eginak ditu jada. Bost egun behar ditu orain Pekinerako bideari tankera hartzeko. Transiberianoan, Irkutsera. Baikal lakuaren inguruan egun batzuk egin, eta Transmongolianoan Ulaan Baatorrera, Mongoliako hiriburura. Gero, aste batzuk pasatu eta gero, Pekinera...

Pekin zuen Iribarrenek bigarren eta azken jomuga. Baikal lakutik, ur gozoen putzuaren ingurutik pasatuta heldu zen Mongoliara. «Zeru urdinaren lurra da». Hala diote. Urtean berrehun eta hirurogei egunetan esnatzen omen da eguzkia bertan. Apirila artekoak elurrez jantzten dira Gobi desertuan, eta zenbait lakuk izotzaren babesean egiten dute lo ekaina bitarte. Ulaan Baator munduko hiribururik hotzena bide da.

Baina batzuetan soilik, beroenetakoa ere izan baitaiteke. Eta politena... «Finlandiarekin batera, ikusi dudak lekurik gogoangarriena» dela dio gipuzkoarrak Mongolen herria.

Bakardadean, bizikleta lagun izanda, guztira hamabost mila kilometro egin ditu abenturazale gipuzkoarrak. Plaza Gorritik Debekatura; Moskutik Pekinera. Tartean, abentura andana; arriskuak gutxi, eta kontatzekoak ugari. Bidaia koadernoan idatziak ditu horiek denak. Amaitu da bere abentura; Pekindik hegazkina hartuta itzuli berri da etxera. Datorrenari heltzeko gogoz, betiere. «Uztailaren 14a, Tolosa», idatzi du orain.



Bidean era guztietako paisaia, leku eta herriak zeharkatu ditu bizikleta lagun leial zuela, irudiko haize errota hauek, adibidez.



Moskuko Plaza Gorrian. Huraxe zen bidaia lehenbiziko jomuga. Jakinminez inguratu zitzaion jendea, baina hizkuntza izan zuen muga.



Transmongoliano trenean, Mongoliako lautada eta lurralde zabalak ezagutu zituen. 'Zeru urdinaren lurra', hala deitzen dute Mongolia.